

EUSKARAREN ERABILERA ELGOIBARKO KALEETAN (2010)

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak ekainaren lehen astean egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren % **41,58ak hitz egiten du euskaraz** gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 6.385 elgoibartarren hizkuntz jokaera neurtu da.

Hauexek izan dira 2010eko emaitzak:

PERTSONAK	EUSKARAZ	%
6.385	2.655	41,58 (2008an 39,57)

ADINAREN ARABERA zera ageri da:

	GUZTIRA	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
euskaraz %	% 41,58	%56,5	% 48,1	% 38,16	% 32

Urtez urteko datuak konparatuz gero, adinaren araberako emaitzak aldatu egin dira pixka bat, hala ere, bada datu bat aklatzen ez dena: **Elgoibarren**, inguruko herrietan bezala, **haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 56,5)**. 2008an egindako neurketaren konparatuz gero, adin tarte guztiek gora egin dute adinekoek izan ezik. Azken urteotan jaitsiera nabari da adinekoen artean, gaur egungo adineko asko garai batean kanpotik etorritako helduak dira, beraz, heldu horiek adinean joan ahala, lojiko da adin tarte horretan jaitsiera ematea.

GIROEN ARABERA zera ageri da:

GIROA	IKASLEEN IRTEERA	JOLASLEKUAK	EROSKETA GIROA	FAMILIA GIROA	GAZTE GIROA	TXIKITEOA
eusk %	45,8	52,17	35,63	40	36,88	39

Giro ezberdinei dagokienez, jolaslekuetan, ikasleen irteeran eta familia giroan izan dira emaitzarik hoberenak, ondoren datoz txikiteoa, gazte giroa eta erosketa giroa.

Familia giroari dagokionez, zertxobait jaitsi da erabilera orokorra, eta batez ere, adinekoengatik, haur eta gazteen erabilera igo egin baita giro honetan.

Txikiteoan ere zertxobait jaitsi da erabilera, eta aurreko giroan bezala, adinekoen erabilera izan da jaitsierarik handiena izan duena (45etik 18,51ra). Haur eta helduek mantendu egin dute erabilera eta gazteek igo.

Erosketa giroan 2007tik 2008ra emandako jaitsiera (%32,6tik 22,05era), berreskuratu da eta 2010ean erabilera % 35,63ra igo da, 2007ko kopurura hurbilduz.

Ikastetxeetako irteeretan ere gauza bera gertatu da, erabilera 39,7tik 45,8ra igo da 2007 urteko erabilera (42,7) gaindituz.

Jolaslekuetan eta gazte giroan mantendu egin da erabilera, hala ere, aipatzekoa da adinekoek bi giro horietan izan duten beherakada. Beherakada hau negatiboa bada ere, kontuan izan behar da, adibidez, Gazte giroan gainontzeko adin tarte guztiek gora egin dutela euskararen erabilera.

Belaunaldi bakoitzak esparru ezberdinetan **dituen gorabeheri buruz**, esan behar da helduek eta zaharrek gorabehera handiak azaltzen dituztela. **Helduen kasuan**, txikiteoan % 30,68 egitetik 50etik gorako erabilera izatera pasatzen diran jolaslekuetan eta ikastetxeetako irteeran. Gauza bera gertatzen da **adinekoen kasuan**, % 18 inguru egitetik ia 38ra pasatzen dira bi giro horietan. Argi geratu da adinekoek helduek bezalaxe hurrekin jolas giroan erabiltzen dutela euskara gehien.

Gazteek, berriz, arraroa bada ere, ikastetxeetako irteeretan erabili dute euskara gutxien baina gainontzeko giroetan % 52tik gorakoa izan da erabilera. 2008ko neurketan ere ikastetxeetako irteeran entzun zen euskara gutxien gazteen artean. Horren arrazoia zein den ez dakigu baina agian kanpotik datozen ikasleek (etorkinak, inguruko herrietakoak...) eragina izan dezakete hizkuntz ohituretan. Adibidez, gazte giroaren neurketa ez da larunbat arratsaldean egiten, kanpotar asko egoten baita gurean eta horrek emaitza itxuraldatu dezake.

Hurrei dagokienean, honako hau esan genezake: hurrek, oro har, bataz beste % 50etik gorako erabilera mantendu dutela, familia giroan % 66ra iritsiz. Datu positiboa dela uste dugu.

Bukatzeko, esan beharra dago **finkatu egin dela azken urteotako euskararen erabilera**, hamar urtetako datuak begiratu besterik ez dago:

	2000	2004	2006	2008	2010
GUZTIRA	% 38,3	% 41,4	% 39,7	% 39,57	% 41,58

Kontuan izan behar da horrelako neurketek euskararen erabileraren bilakaera orokorra zein den jakiteko balio dutela, eta joera orokorra hartu behar dela kontuan eta ez urte batetik bestera dagoen kopuru aldaketa.